

Saila: 40 NEKAZARITZA

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 42 UREZTATZE PLANA

Programa: 42 PLAN DE REGADIOS

SAILAREN MEMORIA**MEMORIA DEL DEPARTAMENTO****I. MEMORIA**

2004. urtean Nekazaritza Sailak, ureztatze alorrean, aurkeztutako eskabideak aztertu ditu. Horretarako, tokian bertan aztertu du haietako bakoitza, aurkeztutako irtenbideei buruzko informazioa eman ahal izateko, baita horiek gauzatea komenigarria den ala ez jakiteko ere. Obren proiektuak berrikusi dira.

Horrez gainera, Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuko teknikariek kontrolatu eta berrikusi dituzte 2004. urtean egindako obrak eta, hala zegokionean, obra horien zuzendaritza ere egin dute.

Aurten, 2 milioi berrehun mila euroko aurrekontu batetik 2 milioi euro baino gehiago kostatu diren ureztatze ekintzak egin dira, honako zona hauetan:

Maeztu, Montevite, Kanpezu, Lantaron, Erroitegi

Halaber, 2004ko jardueren artean, Arabako Lanak SAri agindutako proiektua gauzatzegatik ordaindu zaio, hain zuzen ere, "Lautadan, Vitoria-Gasteizko iparraldetik eta ekialdetik pasatzean, Zadorra ibaiko urak ureztatzeetarako aprobetxatzeko proiektua (obra komunak)" gauzatzegatik.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

- 1.- Betiko lantzeen produktibitatea gehitzea eta etekin handiagoko lantze alternatibo berrien garapena lortzea.

Arabako Lurralde Historikoko 11 eremuetako sailak ureztatze lur bihurtzeko ekintzak burutu dira. Horien zenbatekoa 5.333.884,00 eurokoa izan da eta Aldundiak 4.912.035,00 euroko laguntza eman du.

- 2.- Nekazaritza ustiategiak errentagarriago izatea lortzea, horrela Europar Batasunaren esparru berrian lehiakor izateko.

I. MEMORIA

Durante el año 2004, el Departamento de Agricultura, en materia de Regadío, ha estudiado y analizado las diferentes solicitudes presentadas, mediante el reconocimiento en campo de cada una de ellas, con el fin de poder informar sobre las soluciones presentadas y su conveniencia de llevar a ejecución, revisándose los correspondientes proyectos de obra.

Igualmente, se ha realizado el control y supervisión de las obras que se han ejecutado durante 2004 y la dirección de obra, en su caso, por parte de técnicos del Servicio de Desarrollo Agrario.

Durante el presente año se han realizado actuaciones en regadío cuyo costo ha ascendido más de 2 millones de euros, sobre un presupuesto de 2 millones doscientas mil de euros, en las siguientes zonas:

Maestu, Montevite, Campezo, Lantarón, Roitegui

Asimismo y dentro de las actuaciones en 2004 se encuentra el abono a Arabako Lanak de la ejecución por encomienda del proyecto de Aprovechamiento de agua para riegos en el curso medio del Zadorra a su paso por la Llanada, zonas Norte y Este de Vitoria-Gasteiz (Obras Comunes)"

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

- 1.- Aumentar la productividad de los cultivos tradicionales y conseguir el desarrollo de los nuevos cultivos alternativos de mayor rentabilidad.

Se han realizado actuaciones de transformación en regadíos por importe total de 5.333.884,00 euros en 11 zonas del Territorio Histórico de Álava, con una ayuda por parte de Diputación de 4.912.035,00 €

- 2.- Conseguir una mejora de la rentabilidad de las explotaciones agrarias, que haga posible su competitividad en el nuevo contexto comunitario.

2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 42 UREZTATZE PLANA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 42 PLAN DE REGADIOS

2004. urtean egindako ureztatze ekintzak honako hauek izan dira:

- Ureztaketak egiteko obrekin jarraitzea: Maeztu
- Antezanako antzinako zundaketaren aprobetxamendurako behar diren obrak burutzea.
- Hainbat ureztatzaile elkarteri laguntza ematea, ureztaketak hobetzeko.
- Bestelako jarduerak, hala nola topografia, planoak, ur eskumenari buruzko txostena, ureztaketa arloko lege aholkularitza.

3.- Arabako baliabide hidriko guztiak ahalik eta modu arrazoizkoenean erabiltzea, eta pertsonentzako erabilera eta erabilera ekologikoa nekazaritzakoarekin bateragarri egitea.

Ureztaketak egiteko proiektu eta ekintza guztietan kontuan hartu da baliabide hidrikoen erabilera hobea, eta pertsonen erabilerarekin duen bateragarritasuna.

4.- Arabako Ureztaketa Planean sartutako zona ureztagarrien proiektuak egitea.

Arabako Ureztaketa Planean sartzen dira 2004an gauzatutako plan guztiak.

5.- Ureztatzaile elkartearen kudeaketa administratiboa erraztea.

Nekazaritza Sailak ureztatzaile elkarteei aplikazio informatiko bat eskaintzen die, haien kudeaketa administratiboa errazteko (aplikazioa eguneratuta mantentzen da).

Las actuaciones en regadío llevadas a cabo durante 2004, se concretan en las siguientes:

- Continuación de obras de transformación en Regadío de: de Maeztu
- Realización de obras necesarias para el aprovechamiento del antiguo sondeo de Antezana
- Concesión ayuda a varias Comunidades de Regantes para mejoras en regadíos
- Otras actuaciones, como topografía, planos, informe sobre competencia de aguas, asesoramiento legal en materia de regadíos,

3.- Utilización de todos los recursos hídricos provinciales, de la forma más racional posible y consiguiendo la compatibilidad de su uso humano y ecológico con el agrícola.

En todos los proyectos y actuaciones de transformación en regadío se ha tenido en cuenta la mejor utilización de los recursos hídricos y su compatibilidad con el uso humano.

4.- Realización de proyectos de zonas regables integradas en el Plan de Regadíos de Álava.

El total de Proyectos ejecutados en 2004 está incluido en el Plan de Riegos de Alava.

5.- Facilitar la Gestión Administrativa de la Comunidad de Regantes.

Por parte del Departamento de Agricultura, se facilita y asesora a las Comunidades de Regantes, una aplicación informática que facilita la gestión administrativa de la misma, manteniéndose actualizada dicha aplicación.